

Ebazpena: R 90/2023

Espedientea: 63/2021

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 18a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea zeinek duen eskumena INCOTEL INGENIERÍA Y CONSULTORÍA SAK (aurrerantzean, INCOTEL) 2017an egindako telelan-erregimeneko hiru langileren lan-etekinengatiko atxikipenak ordainarazteko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 63/2021 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- INCOTEL sozietateak Bizkaian du zerga-egoitza, eta 2017an atxikipenak egin zizkien, lan-etekin pertsonalengatik, Bizkaiko zentroari atxikitako baina lurralde erkidean egoitza duten telelan-erregimeneko hiru langileri.

Atxikipen horien dirua BFAn sartu zen.

2.- 2021eko otsailaren 5ean, ZAEAk ikuskapen-jarduerak hasi zituen aipatutako atxikipenak ordainarazteko eskumenarekin lotuta, eta, haiek bukatuta, 2021eko martxoaren 26ko txostena egin zuen, zeinean ondorioztatzen baitzen eskumena Estatuari dagokiola.

3.- 2021eko maiatzaren 7an, ZAEAk atxikipenak bidaltzeko eskatu zuen, eta ezetsi egin zuten 2021eko maiatzaren 10ean.

4.- 2021eko uztailaren 9an, ZAEAk inhibizio-errekerimendua egin zion BFari, eta BFAk, 2021eko abuztuaren 5ean, bere eskumena berretsi zuen.

5.- 2021eko abuztuaren 19an, ZAEAk eskumen-gatazka planteatu zion Arbitraje Batzordeari; 4/2021 espediente-zenbakia esleitu zitzaion eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Itunaren 66. artikulua ezartzen du Arbitraje Batzordearen ginkizunak honako hauek direla:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen loturen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Ituna interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea».

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Aplikatu beharreko arauak.

Ekonomia Itunaren 7. artikulua, eztabaida honi *ratione temporis* aplikagarri zaion 12/2002 Legearen jatorrizko idazketan, lan-etekinengatiko atxikipenen eta konturako sarreraren ordainarazpena arautzen zuen, honela:

«Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago».

10/2017 Legearen bidez egindako aldaketaren ondoren, honela geratu da araututa:

«Bat. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, edo zer tokitan egin diren zehazterik ez dagoenean, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla.

Telelanaren kasuan ere, eta lanak edo zerbitzuak atzerrian egiten direnean, edo ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokian egin direla».

3.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

3.1.- Arau-hutsune bat egoteari buruz.

Telelana urrutitik lan egiteko modalitate bat da; haren ezaugarria lan-harremanaren birtualizazioa da, eta horrek langilea libre uzten du leku eta denbora jakin bati lotzetik. Hala, ez du garrantzirik prestazioa materialki non ematen den. Leku hori, gainera, aldakorra izan daiteke, eta horrek zaildu egiten du modu frogagarrian zehaztea zerbitzua lurralde erkidean, foru-lurraldean edo atzerrian ematen den.

Telelanari buruzko 2002ko Europako Esparru Akordioak, 2009an berrikusiak, honela definitzen zuen telelana: informazioaren teknologiak erabiliz lana antolatzeko edo egiteko modu bat, kontratu edo lan-harreman baten esparruan, zeinean enpresaren lokaletan ere egin zitekeen lan bat horietatik kanpo egin ohi baita.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak bere 177. hitzarmenean eta 184. gomendioan arautu zuen etxetiko lana, modalitate hori langilearen etxean edo hark

aukeratutako beste lokal batean, enpresaren lan-lokaletatik kanpo, egiten denean gertatzen dela iritzita.

Barne-araudiari dagokionez, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 13. artikulua arautu zuen telelana, lan-jarduera enpresaren lantokian bertan egin ordez langilearen etxean edo berak askatasunez aukeratutako lekuan nagusiki egiten den lan gisa.

Azkenik, 28/2020 Errege Lege Dekretuak, Urrutiko Lanari buruzkoak, zeinetara jotzen baitu Langileen Estatutuko 13. artikulua, Telelana urrutiko lanaren modalitate gisa arautzen du (baliabide informatikoak, telematikoak eta telekomunikaziokoak nagusiki edo eskusiboki erabiltzean oinarritua), eta hau aitortzen du: «Gaur egun, etxetiko lana baino gehiago, urrunetik egiten den lan malguaz hitz egin behar dugu, lana ingurune berrietan, zeinetan lantokian langilearen presentzia ez den beharrezko, egiteko aukera ematen duen lan malguaz, hain zuzen. Lan-harremanen birtualizazio horrek leku eta denbora jakin batetik bereizten edo deslokalizatzen du langilea».

Horren arabera, argi dago Ekonomia Itunak lan pertsonalagatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko erabilitako lotura-puntu nagusia (zerbitzuaren prestazio materialaren lekua) ez dela egokia hura onartu zenean ohikoa ez zen lan-modalitate baterako, hau da, telelanerako.

Izan ere, ZAEAk lortutako frogekin ere ezinezkoa da zalantzarik gabe baieztatzea langileek beren ohiko bizilekuan eman dituztela zerbitzuak.

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu arau-hutsune bat dagoela, eta, Auzitegi Gorenak 2019ko urriaren 4ko epaian (ECLI:ES:TS:2019:3144) emandako

irizpideari jarraituz, hutsune hori zuzenbidearen interpretatzaileak edo aplikatzaileak bete behar duela.

3.2.- Arau-hutsunearen integrazioari buruz.

Aipatutako epaian Auzitegi Gorenak ezarritako ildo beretik, 10/2017 Legearen bidez egindako Ekonomia Itunaren 7. artikulua erreformak interpretazio-parametro egokia ematen du aurreko ekitaldietarako, haren ondorioak etorkizunari aplikatzeaz gainera.

Hala, langilea atxikita dagoen lantokiaren irizpidea da behar den objektibotasunarekin edo segurtasunarekin ondoen lotzen dena (gogoratu behar da Auzitegi Gorenak nabarmendutakoa: «Irizpide hermeneutiko oso ziurra da legegilearen jarrera, manua aldatu baitu bertan hutsunea aurkitu duenean»), eta enplegatzaileak horren beharra du atxikipena egiteko eta atxikitakoa ordainarazpen-eskumena duen administrazioan sartzeko obligazioa betetzerakoan. Lotura-puntua objektibatzeke irizpide horrek segurtasun juridiko hobea ematen du kasu guztietan; izan ere, kasu askotan ezinezkoa izango da lana benetan non egiten den frogatzea, ez baita nahitaez langilearen etxean egingo.

3.3.- Lantokiari buruz.

Lan- eta gizarte-arloko legedian ez dira gauza bera langilearen atxikipen-zentroa eta langileak zerbitzuak emateko eremu geografikoa.

Ohikoa da enpresek, beren jardueraren izaera kontuan hartuta, bulego edo sukurtsalik ez izatea beren jardunerako erabiltzen duten leku bakoitzean, nahiz eta eremu geografiko horretan zerbitzuak ematen dituzten langileak izan, baita eksklusibotasun-araubidean ere, eta/edo beste espazio batzuetan ez lehiatzeko betebeharrarekin.

Kasu horietan desadostasuna egotea baimentzen da langileak zerbitzuak ematen dituen eremu geografikoaren eta atxikita dagoen lantokiaren kokapen geografikoaren artean, eta horrek garrantzia izango du eztabaida judizialak, Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua eta abar ebazterakoan.

Hala, langile batek lurralde erkidean eman ditzake zerbitzuak, baina foru-lurralde bateko lantoki bati atxikita egon daiteke, edo alderantziz.

Langileen Estatutuaren 40. artikulua ondu ondorioetarako, langilearen lantokia izango litzateke bere zerbitzuak eskusibotasunez ematen dituen tokia, eta ez atxikipen-lantokia. Horrela, zerbitzuak emateko eremu geografikoa aldatu gabe atxikipen-zentroa aldatzeak ez lioke eskubiderik emango kontratua bidegabeko kaleratze baten berezko baldintzekin deuseztatzeko.

Hala ere, lan-prestazioengatik atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko, legegileak «atxikipen-lantokia» aukeratu du; horrek eskatzen du enplegatzailleak langilea «atxikitze» borondatea izatea, eta nahitaez eramaten gaitu lan-kontratuan kontsignatu den eta Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua zehaztuko duen zentrorara.

Nahiz eta 28/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulua arabera langileak urrutiko lana egiteko aukeratutako lekua identifikatu behar duen, atxikipen-lantokiaren irizpidea aukeratzen da oraindik lan-prestazioagatik atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea BFari dagokiola INCOTELen Bizkaiko zentroari atxikitako telelan-erregimeneko hiru langileri 2017an egindako lan-etekinengatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta INCOTEL INGENIERÍA Y CONSULTORÍA SARI jakinaraztea.